

1. POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ANTOLAMENDUA

Espainiako Konstituzioak *Estatuaren Lurralde Antolamendua* VIII. Tituluko hiru artikuluko eskaintzen dizkio toki-administrazioari. 137. artikulua dio Estatua udalerriez, probintziez eta eratuko diren autonomia-erkidegoez osaturik dagoela. 140. artikulua, bere aldetik, udalerrien autonomia bermatzen du, eta udalerriek nortasun juridiko osoa izan behar dute. Haien gobernu eta administrazioa udalbatzei dagozkie. Udalbatzak alkateak eta zinegotziak osatzen dituzte. Zinegotziak auzokideek hautatuko dituzte, bozketa orokor, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez, eta zinegotziak hautatuko dute alkatea. Konstituzioak, halaber, dio toki-ogasunek behar adina baliabide izan beharko dutela legeak esleitzen dizkien eginkizun guztiak betetzeko, eta baliabide horiek, nagusiki, beren tributuen propioak izanez eta Estatuarenetan nahiz Autonomia Erkidegoenetan parte hartuz bilduko dituztela.

Hainbat arauen bidez garatu da toki-administrazioei dagokien legeria. Batetik, autonomia mailako arauak izan da (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Nafarroako toki-araubidea gaurkotzeko 11/2004 Legea), eta bestetik, nazio mailako araudia (Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea eta Toki-gobernuaren modernizatzeko neurriak buruzko 57/2003 Legea). Azken testu horren X. Titulua halako biztanle kopuru jakin batetik gorako udalerrien antolaketa buruzkoa da eta udal-organoen jarduna zehazten du.

Osoko bilkura, alkateak eta zinegotziak osatua, herritarren ordezkari politiko gorenaren organoa da, udal-gobernuari dagokionez. Alkateak egiten du osoko bilkurarako deia eta bertan buru jardungo du, salbu Legeak aurreikusten duen kasuetan. Alkateak, egokitzat jotzen duenean, zinegotziaren bat eskuordetzen ahal du osoko





bilkuraren deia egiteko eta bertan buru aritzeko. Osoko bilkurak bere erregelamendua eginen du, izaera organikoa izanen duena, eta idazkari nagusi bat izanen du.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, hona hemen besteak beste osoko bilkuraren eskumenak: gobernu-organoko kontrolatzea eta fiskalizatzea, izaera organikoko erregelamenduak onetsi eta aldatzea, udal-ordenantzak eta erregelamenduak onestea eta aldatzea, tributu-izaerako baliabide propioak zehaztea, bere eginkizunak edo jarduerak beste herri-administrazio batzuei eskualdatzea edota plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea. Alkateak du udalerraren ordezkariarik gorena eta

kudeaketa politikoaren erantzule da osoko bilkuraren aurrean.

Alkateak, besteak beste, eginkizun hauek ditu: Udalaren ordezkari izatea, Udalerriko politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea; Osoko bilkuretarako eta tokiko gobernu-batzarraren bilkuretarako deia egin eta bertan buru izatea; Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea eta Udaltzaingoaren buruzagitza betetzea; Udaleko organo betearazleen erabakiak argitaratzeko agintzea, eta erabakiok bete eta betearaztea; bandoak, dekretuak eta jarraibideak ematea; kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak

Udalbatza ekainaren 11tik aurrera

ZINEGOTZIAK

UPN udal-taldea

Enrique Maya Miranda
Ana Elizalde Urmeneta
José Javier López Rodríguez
María Caballero Martínez
Juan José Echeverría Iriarte
Fermín Alonso Ibarra
Ana Lezcano Galar
Valentín Alzina de Aguilar
Ignacio Polo Guilabert
Paz Prieto Sáenz de Tejada
Juan Frommknecht Lizarraga

Nafarroa Bai Udal Taldea

Uxue Barkos Berrueto
Iñaki Cabasés Hita
Aitor Lakasta Zubero
Javier Leoz Sanz
Itziar Gómez López

Iruñeko Udaleko Sozialisten

Udal Taldea

Jorge Mori Igoa
Pilar Ferrero Peso
Eduardo Vall Viñuela
(2011tik aurrera, Juan Moscoso del Prado Hernándezen ordezkoa)

Bilduiruñea Udal Taldea

Eva Aranguren Arsuaga
Peio Martínez de Eulate
Patricia Perales Hurtado
(2012tik aurrera, Arantza Oskoz Marcellaren ordezkoa)

Nafarroako Alderdi Popularreko

zinegotzi atxiki gabeen taldea

José María Núñez Centano
Cristina Sanz Barrios

Aralar zinegotzi atxiki gabeen taldea

Ana Barrena Arellano
Aritz Romeo Ruiz

Izquierda - Ezkerrako zinegotzi atxiki gabea

Edurne Eguino Sasiáin

hartzea, eta Osoko Bilkurari jakinaraztea; eta Udal-administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura ezartzea osoko bilkurak udal-antolakuntzaren gainean egotzita dituen eskumenen aurka joan gabe.

Tokiko gobernu-batzarrak, alkatearen lehendakariitzean, alkateari dagokion zuzendaritza politikoan laguntzen dio kide anitzeko organo moduan. Alkateari dagokio tokiko gobernu-batzarreko kideak askatasunez izendatzea eta kargutik kentzea; kideon kopurua ezin da izan osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren herenetik gorakoa, alkateaz gain. Tokiko gobernu-batzarrak bere kudeaketaren erantzukizun politikoa du

solidarioki osoko bilkuraren aurrean, bertako kide bakoitzak bere kudeaketaz duen zuzeneko erantzukizuna alde batera utzi gabe. Eztabaidak isilpean gorde behar dira.

Tokiko Gobernu Batzarrari hauek dagozkio, besteak beste: ordenantzen eta erregelamenduen proiektuak onartzea, organikoak barne, osoko bilkura eta bertako batzordeak arautzeko arauak salbuespen direla; aurrekontu-proiektua onartzea; hirigintza-antolamenduko tresnen proiektuak onartzea, horien behin betiko zein behin-behineko onarpena osoko bilkurari dagozkionean; edozein lizentzia-mota ematea, arloko legediak berariaz beste organoren bati egotzitakoa ez bada; kontratazioak eta



ZINEGOTZIGOAK

Zinegotzi delegatuak	Ardura zein alorretan	Auzoko zinegotzigoak
Ana Elizalde Urmeneta	Zerbitzu Orokorak	Mendillorri
José Javier López Rodríguez	Proiektuak eta Hirri Kontserbazioa	Txantrea
María Caballero Martínez	Enplegua, Merkataritza eta Turismoa eta Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirola	Sanduzelai – Buztintxuri
Juan José Echeverría Iriarte	Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena	Alde Zaharra
Fermín Alonso Ibarra	Hezkuntza eta Kultura	Etxabakoitz eta Mendebaldea/Ermitagaña
Ana Lezcano Galar	Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna	I. eta II. Zabalgunekak
Ignacio Polo Guilabert	Herritarren Segurtasuna	Arrotxapea

Zinegotzi bereziak	Ardura zein alorretan	Auzoko zinegotzigoak
Valentín Alzina de Aguilar	Ingurumena	Milagrosa-Arrosadia-Santa Maria La Real
Paz Prieto Sáenz de Tejada	Gazteria eta Kirola	Iturrama-Azpilagaña
Juan Frommknecht Lizarraga	Giza Baliabideak	Donibane



emakidak; ondarea kudeatu, eskuratu eta besterentzea, eta kreditu-eragiketak ituntzea ere; lanpostuen zerrenda eta langile-ordainsariak onestea: edo udal-administrazioa zuzendaritza-organoetako titularrak izendatzea eta kentzea.

Osoko bilkurak **batzordeak** izanen ditu, talde politiko bakoitzak dituen zinegotzi kopuruaren arabera izendatzen dituen kideez osatuak. Batzordeei eginkizun hauek dagozkie: osoko bilkuraren erabakira jarri behar diren gaien azterketa, txostena zein kontsulta; Alkatearen eta haren gobernu-taldearen kudeaketaren jarraipena, eta legearekin bat osoko bilkurak eskuordetzan emandakoak. Batzordeak iraunkorrak eta bereziak izan daitezke. Iruñeko Udalean batzorde iraunkor hauek daude: Lehendakaritza Batzordea (Zerbitzu Orokorretako eta Herritarren Segurtasuneko alorretako kontuez eta Kirol eta Gazteriako gaiez), Herritarren Aferen Batzordea (Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna; Hezkuntza eta Kultura; Enplegua,

Merkataritza eta Turismoa; eta, Herritarren Partaidetzari dagozkion gaiak), eta Hirigintza Batzordea (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena; eta, Proiektuak eta Hiri Kontserbazioa).

Udalaren beste organo bat **Bozeramaileen Batzordea** da, alkateaz, udal-talde politikoetako bozeramaileez eta ezein udal-talderi atxikita ez dauden zinegotziez osatuta. Haren bilkurek eztabaidatzeko izaera izanen dute. Eginkizun hauek ditu: alkateak ematen edo agertzen dizkien informazioak eta kontsultak oro zinegotzi guztien artean zabaltzea; udal-talde politikoen eta zinegotzi atxiki gabeen eskari guztiak bideratzea, eta Udalaren osoko bilkuretan zenbat parte-hartze egonen diren eta horiek zenbat iraun behar duten erabaki eta alkateari proposatzea.

Alkatea

Enrique Maya Miranda

Alkateordeak

Ana Elizalde Urmeneta, lehen alkateordea eta Zerbitzu Orokorretako zinegotzi delegatua

José Javier López Rodríguez, bigarren alkateordea eta Proiektuetako eta Hiri Kontserbazioa zinegotzi delegatua

María Caballero Martínez, hirugarren alkateordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismoa eta Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kiroleko zinegotzi delegatua

Zinegotzi delegatuak

Fermín Alonso Ibarra, Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi delegatua

Ignacio Polo Guilabert, Herritarren Segurtasuneko zinegotzi delegatua

Juan José Echeverría Iriarte, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumeneko zinegotzi delegatua

Ana Lezcana Galar, Gizarte Ongizate eta Berdintasuneko zinegotzi delegatua

Zinegotzi bereziak

Valentín Alzina de Aguilar, Ingurumeneko zinegotzi berezia

Paz Prieto Sáenz de Tejada, Gazteria eta Kiroleko zinegotzi berezia

Juan Frommknecht Lizarraga, Giza Baliabideetako zinegotzi berezia

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Enrique Maya Miranda (Alkatea), batzarreko burua

Ana Elizalde Urmeneta (lehen alkateordea), zinegotzi idazkaria

José Javier López Rodríguez (bigarren alkateordea)

María Caballero Martínez (hirugarren alkateordea)

Fermín Alonso Ibarra

Ignacio Polo Guilabert

Juan José Echeverría Iriarte

Ana Lezcana Galar

UDAL ALORRAK

GIZARTE ONGIZATEA ETA BERDINTASUNA

Zuzendaria: María Jesús Vicente Goicoechea

Idazkari teknikoa: Jesús María Pascal Mendioroz

ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

Zuzendaria: Silvia Azpilicueta Rodríguez-Valdés

Idazkari teknikoa: Aurora Mendía Leache

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Zuzendaria: Teresa Lasheras Balduz

Idazkari teknikoa: María Ángeles Ardanaz Ozcoidi

HERRITARREN PARTAIDETZA, GAZTERIA ETA KIROLA

Zuzendaria: Conchi Mateo Pérez

Idazkari teknikoa: Aurora Mendía Leache

PROIEKTUAK ETA HIRI KONTSERBAZIOA

Proiektuetako Zuzendaria: José Ignacio Alfonso Pezonaga

Idazkari teknikoa: Francisco Linero Palacios

Hiri Kontserbazioko Zuzendaria: Óscar Esquíroz Noble

Idazkari teknikoa: Javier Barace Egaña

HERRITARREN SEGURTASUNA

Zuzendaria: Alberto Margallo Lana

Idazkari teknikoa: Jesús Salinas Andueza

ZERBITZU OROKORRAK

Ogasuneko Zuzendaria: Nuria Larráyoiz Ilundáin

Idazkari teknikoa: Javier Bernabéu Llovet

Giza Baliabideetako Zuzendaria: Julio Sucunza Azcona

Idazkari teknikoa: Juan Sáez Leclercq

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMENA

Hirigintza eta Etxebizitzako

Zuzendaria: Fernando Nagore Ferrer

Idazkari teknikoa: María Gay-Pobes Vitoria

Ingurumeneko

Zuzendaria: María Teresa Martínez Remírez

Idazkari teknikoa: María del Mar Indave García

UDAL GERENTZIA

Gerentea: José Vicente Valdenebro García

ALKATETZA KABINETEA

Zuzendaria: Juan Echenique Huarte

Idazkari teknikoa: María Esther Azanza Fernández

HIRIGINTZA GERENTZIA

Gerentea: Fernando Nagore Ferrer

Gerentearen ondokoa: Izaskun Zozaya Yunta

HIRIA ZAHARBERRITZEKO BULEGOA

Zuzendaria: Alberto Calvo Azagra

Idazkari teknikoa: María Gay-Pobes Vitoria

HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOA

Gerentea: José Carlos de la Dehesa Villar

ANIMSA

Gerentea : Íñigo Sanciñena Morales

SOCIEDAD PAMPLONA CENTRO HISTÓRICO

Gerentea : Alberto Calvo Azagra

COMIRUÑA

Gerentea : Pedro Lafuente Vicente

ASIMEC

Gerentea: Miguel Ángel Irisarri Mateo

BATZORDEAK

Izena	Izaera
Lehendakaritza	Arrunta
Herritarren Aferak	Arrunta
Hirigintza	Arrunta
Kontuak	Berezia
Kontratazioaren zaintza	Berezia
Irakokizunak eta erreklamazioak	Berezia
Erosketa Batzarra	Berezia

UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK

Hirigintza Gerentzia

Haur Eskolak

UDAL PARTAIDETZAKO ENPRESAK

Udalaren menpeko sozietateak

(udal partaidetzako enpresak)

- Comiruna S.A. (% 100)
- Pamplona Centro Histórico S.A. (% 100)
- Udal Laguntza Etxean S.A.-ASIMEC (% 100)
- Asociación Navarra de Informática
- Municipal S.A.-ANIMSA (% 78)
- Mercairuna S.A. (% 51)

UDAL-FUNDAZIOAK

(Estatutu juridiko berezi baten menpekoak)

- Gayarre Antzokia Fundazioa
- Erruki Etxea



MEMORIA 2012

11